

LUR BIZIA ONLINE TAILERRA

PROGRAMA ETA MATERIALAK

Beti ere pertsona heldu baten gainbegiratupean, mikrotailer bakoitzean teknika artistiko ezberdin bat jorratuko da, eta jada existitzen diren materialak erabiltzen ahaleginduko gara, erabilera berri bat emateko.

1. Mikrotailerra: *Mundua aldatzea 60 segundotan. Bideoarte formatu txikian*

Teknika: Bideoarte

Tailer honetan, klima-aldaketan oinarritutako 60 segundoko film labur esperimentala sortuko dugu. Asmoa da gero gure lagunekin eta senitartekoekin partekatzea, natura zaintzeak duen garrantziaren inguruan kontzientzia hartzeko. Urrats batzuk jarraituko ditugu: gaiaren garapena, gidoi txiki bat sortzea eta materialak hautatzea. Eta galdera hauek egingo ditugu: *Zer kontatu nahi dugu? Nola kontatu nahi dugu? Zer beharko dugu? Nola egingo dugu?...*

Materialak:

Mugikorra edo argazki-kamera
Koloretako kartulinak
Paperezko zinta
Metroa
Hainbat jostailu (eraikuntzako piezak, panpinak,...)
Liburu zahar bat
Mapa zahar bat
Ile-lehorgailua
Plantxa bat
Post-its batzuk
Plastikozko baso bat
Kristalezko baso bat

2. Mikrotailerra: *Ikusi makusi. Instalazio bat sortzen*

Teknika: Instalazioa

Argiak duen garrantzia eta nola funtzionatzen duen ikasiko dugu. Etxean aurkitzen ditugun elementuak erabiliko ditugu pieza bat sortzeko, gero harekin jolastu eta instalazio berri bat sortzeko, argian eta proiektzioan oinarrituta. Gainera, argazkia nola atera diezaiokegun ikusiko dugu.

Materialak:

Linterna edo lanpara bat
Paketatzeko plastikoak (blisterak, CD kutxak,...)
Errotulagailuak
CD edo DVD zaharrak
Paperezko zinta edo zelaia

3. Mikrotailerra: *Harria, papera edo guraizea. Collagea komunikatzeko tresna gisa*

Teknika: *Collagea*

Jarduera egiteko kalean hasiko gara. Bidean aurkituko ditugun kartel ezberdinetako hitzak bildu behar ditugu (etxean ditugun aldizkari eta beste argitalpen batzuetako hitzak ere erabil ditzakegu). Collage teknikaren bidez, dena moztuko dugu, eskura ditugun hitzak eta letrak dituzten mezu berriak sortzeko. Komunikatu nahi dugun mezu bat pentsatuko dugu, eta poster bat egingo dugu, gero gure etxean edo gure leihoan jartzeko.

Materialak:

Guraizeak
Kuterra
Paperezko zinta
Barra-kola edo kola zuria
Aldizkari zaharrak
Kartoizko bilgarriak
Kaleko kartelak

4. Mikrotailerra: *Bazen behin... artista-liburua*

Teknika: *Artista-liburua*

Jarduera honetan, artista-liburua sortuko dugu. Sormen-lan bat egitean ideiak idaztea zein garrantzitsua den egiaztatuko dugu. Etxean eta bereziki edukiontzi urdinean (papera birziklatzeko) aurkitzen ditugun materialak erabiliko ditugu. Enkoadernaketa xume bat egingo dugu, eta, ondoren, azala gure sorkuntzako zigituekin kustomizatuko dugu.

Materialak

Grapagailua edo artilezko orratza, puntzoia eta artilea
Birziklatutako folioak
Kartoi-bilgarriak
Poliestirenozko enbalajeak edo goma eva zati bat
Plastikozko tapoiak
Kartoizko hodia
Goma elastikoak
Kola
Arkatza
Pintura edo tinta
Pintzel bat
Guraizeak